

## Tresna askoren jotzaile

Txistuarekin hasi zen Jon Garmendia ▶ 2-3



# Garaipen garrantzitsua lortu du Tolosa futbol taldeak Zumarragan

**GORAKA** ▶ Sailkapenean parean zuen Urola taldeari 1-3 irabazi Argixaon eta aurrea hartu dio

**BAJAK** ▶ Lau baja izan arren, «oso ondo» aritu ziren jokalaria eta entrenatzailea «pozik» agertu da ▶ 7



Tolosa-Urola atzo. MIRIAM LUKI



## Txirrindulari eta lagun ugari bildu dira Aitor Garmendia omentzeko

**VILLABONA** ▶ Herenegun gauean Aitor Garmendia Itsasondoko txirrindulari ohia omentzeko txirrindulari eta lagun ugari elkartu zen Irrintzi elkartearen, tartean taldeburu izan zuen Miguel Indurain —argazkian, oparia ematen—. KARLIS ▶ 6

**TOLOSA** ▶

## Euskara klaseak, haur etorkinak integratzeko

Irazki elkarteak eratu ditu; helduek ere badute aukera ▶ 5



Ikasle batzuk. MADDI SOROA

**TOLOSA** ▶

## Perretxikoak ikertu eta ezagutzera ematen dituzte Pasaban eta Lopez Amiano mikologo tolosarrek

Aranzadi elkartearen aritzen dira; «gero eta gutxiago» daudela eta naturan «funtzio garrantzitsua dutela» diote ▶ 4



## LANDARRI, S.L.

Hilerrien ustiapena eta kudeaketa

- Kanposantuko Lanak**
- Ehorzketak
  - Lurpetik ateratzea
  - Gerakinen lekualdatzea
  - Gerakinen errausketa
  - Errausketa zerbitzua
  - Hilerriaren proiektuak
  - Hilerriaren eraldaketak
  - Eraikuntza ezberdinak
  - Hilobien apainketa
  - Hilarriak
  - Panteoiak
  - Hilobiak
  - Estelak
  - Fotozeramikak
  - Estanpaziozko teknikak

Santa klara, 1 behe - TOLOSA  
Tel./faxa: 943 67 01 14 • Zerbitzu iraunkorra: 610 552 552  
Bidasoa, 9 behe - ORERETA - ERRENTERIA  
Tel.: 943 34 04 67 • Faxa: 943 51 31 41  
www.landarri.com • landarris.l@terra.es



UZTURRETIK ▶  
AGUSTIN AMIANO

## Hego- haizearen indarra

**E**rnio inguruko gainak igaro berriak ditugu hegaldi larri eta zorigaiztoko honetan. Bihotzak ere, luze iraungo duen esprinta hasi berria du, hegaldiak baino zerbait gehiagok bizkortutako taupada saioa. Danba eta danba! Berunezko esferatxo zuzenduek nire aldameneko uso gaixoan egin dute topo, hegazti lerdena zorabiatutako trapu bihurtuz.

Eskopeta distiratsuak ez du hutsegín, ehiztariak begi bakarra zuen zabalik, baina ez zegoen erdi-lotan. Jantziak ere zerikusia izango du, edo hobe esanda, zer ez-ikusia; okasiorako jantzi preziatua, koloreak non ezkutatu dituen ez dakien jantzia, bolbora usaina disimulatu ezin duena eta kartutxo astunez plantxatua.

Ondorengo mendi tontorra aise gainditu dugu, haizeak ez digu batere laguntzen baina. Danba eta danba! Tiro hotsak nonahitik datoz, eta noranahi ere, ziur nago. Baina perdigoiak guganaino indargabetuak eta sakabana-tiak iristen direnez, zirin mingotsez iraindu ditugu, bidea arinago egin dezakegula ziurtatuz.

Zakur belarri-handiek ez dute oraingoan lanik izango. Beren belarriak baino txikiagoak diren txoriak bilatzeari ekin beharko diote berriro ere, agian inork lumatuko ez dituen hegaztiak gerturatzeari. Halere, zakurra bera izango da etxera trofeorik ez eramatearen errudun nagusia, bai behintzat ehiztariaren ahotan.

Bailarako paraje dotoreak gainditu ditugu azkenik, baina ez denok. Danba eta danba! Todoterrenoen bidea erraztearren, mendia urratu dutela ziurtatu dugu tristoraz, norbaiten jolasa eta gure heriotza maila berean parekatuz.

Okerrera gainditu dugu. Aurtengo neguan ere ehunka luma goxok epelduko dute gure gorputz ahula hor hegoaldean. Baina beste ehunka luma. zenbait supazterretan pilatuko dira, uso biltzuen lotsaz, hego-haizearen oztopez, batzuen liluraz zein besteen atsekabez.

Izan ere, iparra uztea bururatu gero, hegoa dugu zain.



## Izaskungo ermitaren mendeurrenean, bi irudi zahar

**ARGAZKI ZAHARRAK** ▶ Atzo bete zuen mendea Izaskungo ermita berrituak eta gaur meza nagusia eta hamaiketako izango da bertan. Hori dela eta, Izaskungo ama birjinaren bi irudi zahar

dakartzagu txoko honetara. Ezkerrekoa Santa Klara komentuan zegoen, erromaniko gotikoa da. Eskuinekoa, 1900 urtekoa da.

MONS. MAYORAREN 'HISTORIA DE NTRA.SRA. DE IZASKUN' LIBURUTIK.

**JON GARMENDIA** ▶ MUSIKARIA

**IÑIGO TERRADILLOS**

Herriko ospakizun eta ekitaldietan ikusi ohi dugu normalean Jon Garmendia, 24 urteko ibartarra musika tresnaren bat joaz. Txistua, panderoa, alboka, trikitixa, txalaparta, dultzaina eta pianoa menperatzen ditu besteak beste. Txiki txikitatik hasi zen txistuarekin eta hura gustatu eta beste hainbat tresna probatuz jarraitu zuen. Unibertsitatean ikasten ari zela Musikene, Euskal Herriko goi mailako ikastegian musika tradizionalaren joera berriak lantzen aritu da. Bertan, Kepa Junkera izan zuen maisu. Aurtengo maiatzetik aurrera Kepa Junkerarekin ari da kontzertuak emanez eta denetarik jotzen du berekin ere, alboka, txistua txalaparta, panderoa... Bestalde, Beasainen soinketa eskolak ematen ditu eta Atauen, Lazkaon, Zestoan eta Azkoitian musika eskoletan alboka, txistua eta txalaparta irakasten du. Azken aldian denbora libre gutxi izaten badu ere, tarte txiki bat egin du HITZAREKIN solasean aritzeko.

**Herrian zure musika eskaintzetik, Kepa Junkerarekin munduan zehar birak egitera pasatu zara denbora gutxian. Nola egiten da hori?**

Musikenen musika ikasten ari-

## «Aukera hauei etekina atera behar zaie»

Kepa Junkerarekin ari da Jon Garmendia; Ibon Koteronekin, txalaparta konpainian eta txistuan ere jarduten du

tu nintzenez, bera zen maisuetako bat. Duela urte eta erdi Etxak (Euskal Herriko txalaparta konpainia) sortu zuen eta bertan jotzen hasteko proposatu zidan Kepak. Geroago, orain bost hilabete edo, ea berarekin hasiko nintzen galdetu zidan.

**Nola gogoratzen duzu taula gainera igo zinen lehenengo umea?**

Lehenengo kontzertua Bilbon izan zen niretzat. Euskalduna jauregian jotzen genuen eta oso lasai joan zen guztia, espero baino lasaiago. Hala ere salto handia izan zen niretzat, herriari jotzetik milaka lagunen aurrean aritzera.

**Hasi zinenetik ez zara gelditu. Denbora librerik apenas duzu, baina merezi duela diozu.**

Uda honetan, Italia, Alemania, Ingalaterra, Frantzia, Norvegia, Portugal, Espainia eta Euskal Herriari aritu gara. Irailean,

berriaz, Amerikako Estatu Batuetan egin genuen 18 eguneko bira. Guztira 4 edo 5 egun izan ditut niretzat uda guztian.

**Eta hemendik aurrera ere hain beterik al duzue agenda?**

Bai. Ia asteburuero ditugu kontzertuak datorren uda bitartean.

**Grammy latino eman zuen Kepa Junkeraren taldeak irailan, pasa den urtean grabatutako zuzeneko diskoagatik. Ustekabea izan al zen?**

Zalantzarik gabe. Izendatuta ginela bagenekien, baina ez genuen saria eramaterik espero. Ustekabe handia hartu genuen. Gainera, sari hauek beti hartzen dira gustura, izena ematen baitizute.

**Ez zara, ordea, Kepa Junkerarekin soilik aritzen?**

Ibon Koteronekin ere Musikenen ematen ditu klaseak eta berarekin, Airean izeneko diskoan kolaborazio batzuk egin ni-

tuen. Bestalde, Etxak txalaparta konpainiakoeekin ere diskoak ari gara prestatzen. Tolosako Udaltzari Bandoan ere aritzen naiz eta herrian, lagunartean egiten ditut beste emanaldi batzuk.

**Musikak dirudien baino denbora gehiago eskatzen du.**

Horrela da. Jendeak uste du kontzertuan ateratzen zaren denbora hori besterik ez dela izaten, baina horren guztiaren atzean lan handia dago, entseguak eta prestaketa ugari egin behar baitira. Lagunek esaten didate zorte handia dudala hainbeste bidaiatzeagatik, baina niretzat lana da, beste edozein lan bezala.

**Kepa Junkeraren musika entzuten al zenuen berarekin lanean hasi aurretik? Eta orain? Betidanik gustatu izan zait Kepa Junkera eta asko entzun izan dut. Azken aldian, ordea, gutxiago entzuten dut. Entseguak, kontzertuak eta gero**

GUTUN@K ▶



## Intsumisio kanpaina hasi da

Euskal Herri osoan zehar hedatzen ari den borroka honek oihartzuna izango du Tolosan ere. Ekimen desberdinak antolatuko dira datozen hilabeteetan, eta hauek bere osotasunean ulertzeko eta kokatzen jakiteko, sarrera labor bat egitera goaz.

Intsumisioaz espainiar eta frantziar inposaketa desegin eta Euskal Herria eraiki! Gu ez gara espainiarrak, ez eta frantsesak ere. Euskaldunak gara eta kitto! Guri, aldiz, inposatu zaigu espainiar eta frantses izatea. Behartuta bizi gara espainiar eta frantses gisa, espainiar eta frantses arau, hizkuntza, heziketa eta kultura inposatuaren mende. Inposaketa honen erroak, Euskal Herriari nazio izatearen ukazio eta Euskal Herriaren zatiketaren dira. Euskal Herriari naziotasuna ukatzearekin batera, espainiar eta frantziar subiranotasun nazionala inposatzen zaizkigu: Espainiako Konstituzioa, auto-

nomia estatutua eta frantziar errepublikaren Konstituzioa. Euskaldunok gure eskubideen berreskurapenerako borroka egin dugu beti, borroka baita zapalkuntza eta errepresioa garatzeko bide bakarra.

Intsumisioa eraginkorra egiteko, gutako bakoitzaren jarraitik abiatuz, gu guztion artean baliorik gabe utzi ditzakegu espainiar eta frantziar egiten gaituzten arauak. Ez Estatuturik, ez Konstituziorik, ez espainiar eta frantziar banderarik, ez eta lurralde zatiketarik ere!!! Inposaketa apurtzearekin batera, gureak egingo ditugu gaur ukatuak zaizkigun eskubideak. Horretan oinarritzen da gure borroka eta Euskal Herri askearen eraikuntza: apurto eta eraiki!

Eta nola egingo dugu intsumisioa guztion artean? Espainiar eta frantziar sinbologia oro ezabatuz. Frankismo garaiak plakak, frantziar errepublikaren sinbolo diren Marianak kendu, espainiar eta frantziar egiten gaituzten nortasun agiriak ez erabiliz, eta EHNA onartzea esijituz, Euskal Herriaren

lurralde askea munduko mapan marraztu eta zabalduz...

Hau dena eta gehiago jorratuko dugun batzar irekira gonbidatzen zaituztegu, Kultur Etxean asteartean, hilak 9, 18:30ean. Animo eta jo ta ke intsumisioaz inposaketaekin amaitu arte!!

SEGI ▶ TOLOSA

WEBGUNETIK ▶



## Zer egingo zenuke Leidorren?

Nire ustez, ahal izanez gero multizinemak ipini beharko lirateke. Bestalde aipatu beharra dago ere, Tolosan merkatalgune bat irekitzeko behar larria dagoela, batez ere gazteon artean. Ni neu nazkatuta nago asteburuoro Urbil edo Garberara joateaz.

JAIONE

Gazte gune bat egingo nuke.

Tolosan 14-20 bitarteko gazteak askotan kalean ikusten ditugu. Kirolen bat egiten ez baduzu, tabernak geratzen zaizkizu. Gazte gune batean gazteek astean nahiz asteburuetan non egon izango lukete. Ekitaldi ezberdinak, tailerrak... Multizineak zertarako? Hobe orain bezala mantendu!! Esan multizineetara joanez gero gastua ez dela txikia, gurasoei esan behar!!

NAIARA

Nire ustez merkatalgune bat zein gazteleku bat eraiki beharko litzateke. Merkatalgune-etara joateko ohitura duten gazteak ez dira gazteleku batera joango... Leidor zineman zinema mantentzearen alde nago, baina merkatalgunea zein gazteleku eraiki beharko litzateke ere, gazteon behar ezberdinak asetzeko. Naiara, ezin da ukatu ezta ere, Tolosako gaur egungo kale mugimendua orain dela 5 urte baina askoz txikiagoa dela. Gazteok aisialdi modu berriak aurkitu ditugu eta «kalearen kultura» asko galdu da.

OLATZ GARMENDIA

**XABIER MENDIA**  
KAZETARIA

«Ez zait axola zein publikorentzat lana egiten dudan; ikusle guztiek dute xarma, grazia eta zailtasuna»

**JUANMA LILLO**  
TERRASSA-REN ENTRENATZAILEA

«Azken urte hauek, urte zailenak, izan dira ergelkeria kendu didatenak»



IÑIGO TERRADILLOS

## PERTSONALKI ▶

- ▶ Ibarran jaioa ▶ 1979. urteko abenduaren 4an jaioa
- ▶ Magisteritza diplomatua da, Heziketa Fisikoan berezitua
- ▶ Denbora libre gutxi izaten du, musikarekin oso lanpetua baitago ▶ Natura gustatzen zaio; mendira joatea eta arrantza egitea, eta orohar kirola egitea.

**Musika mota?** Zeltar musika, gaita; asko gustatzen zait horrelakoak entzutea. **Musikari bat?** Euskal musikan denetarik entzuten dut, baina Benito Lertxundirekin geratzen naiz. **Musika ala soinketa?** Musika, irauten duen bitartean behintzat.

## MUSIKA

«Musikarekin egingo dut aurrera, niretzat denbora gutxi geratzen bazait ere; hala ere, iritsiko dira garai lasaiagoak»



zurre denboran ere musika bera entzuten baduzu azkenean astuna egingo zaizu. Baina beste batzuetan abestiez gogoratze eta belarrira egiteko ere entzun izaten dut Kepa Junkeraren musika.

**Soinketa eskolak ematen dituzu. Zer nahiago duzu bi zereginetatik?**

Orain oso gustura nago nagoen bezala, denbora asko eskartzen badit ere bi gauzak uztartzeak. Unean unekoa hartu behar da, inoiz ez baitakizu bihar non egongo zaren. Aukera handia eman dit bizitzak eta eteki-

na ateratzen jakin behar dut orain.

**Denbora gutxi edo ia batera izaten duzula aipatu duzu, eta gainera egun asko ematen dituzu etxetik kanpo. Zaila egiten al da?**

Ez da erraza, baina ohitu egin behar duzu. Gertukoei ere oso zaila egiten zaie. Nire neskalgunak ez du oso ondo eramanen nik egunak kanpoan igarotzea edo tarte libre gutxi izatearena, baina une hau dela uste dut. Ezin duzu beti horrela bizi alde batetik bestera, iritsiko dira garai lasaiagoak.

## PERRETIXIKOAK ▶

## EDURNE AYUSO

Askoren hitzetan, perretxikoa da udazkeneko fruiturik preziatuena. Azken urteotan gainera, sukalde askotako kutizia bilakatu da. Baina, perretxikoa, jaki goxoa baino gehiago da. Hori erakutsi digu Juan Ignacio Lopez Amiano eta Pedro Mari Pasaban mikologo tolosarrekin izan dugun solasaldiak. Biak dira Aranzadi Zientzia Elkarteak kideak, eta, ederki ezaugarritzen dute perretxikoen mundua, hori bai, jatekoak baino nahiago dituzte ikerketarako balio duten perretxikoak.

Lopez Amiano eta Pasaban, aspaldidanik dira Aranzadiko mikologoak. Laneko orduetatik kanpo izaten dituzten ordu libreak eskaintzen dizkiote zaletasun honi. Mendi eta basoetara joan eta perretxikoak biltzen dituzte, batez ere, berezi samarrrak direnak. Espezie batzuk esate baterako, hamar urtez behin baino ez dira ateratzen, eta, ezin bada horiek bildu gabe utzi.

Jasotako aleak liburuetan azaltzen diren espeziekin alderatzen dituzte, jaso dituztenak zein espezieetakoak diren jakin ahal izateko. Perretxikoak mikroskopioz aztertu eta ondoren, lehortu egiten dituzte herbarioan gordetzeko. Oso garrantzitsua da aurkitutako alea lehortzea, batez ere, sailkatu gabeko espezie bat denean. Ez da oso ohikoa, baina, zenbait kasutan aurkitu izan dute sekula ikusi gabe edo izendapenik ez duen perretxikoren bat.

## Fitxa eta argazkia

Edozein kasutan ere, perretxikoaren ezaugarri guztiak bilduko dituen fitxa bat egiten da: non bildua den, zein garaitan jasotakoa, zein zuhaitzen inguruan e.a. Oso berezia bada, ar-



EDURNE AYUSO

# Perretxikoa, jateko ona, ikertzeko are eta hobea den fruitua

Juan Ignacio Lopez Amiano eta Pedro Mari Pasaban mikologoek perretxikoak ezagutzen lagundu digute

gazki bat ere gaineratuko da. Perretxikoaren izenak ahoskatzeta ez da gauza erraza izaten, latinez eta grekoz izendatzen baitira. Espezie bakoitzak, bi izen ditu, batek generoa izendatzen du eta besteak berriz,

espeziea. Espeziak beti azaltzen du perretxikoren ezaugarriren bat, kolorea, usaina e.a. Mikologoek lana beraz, perretxiko espezieak sailkatzea eta ikertzea dela esan liteke. Aranzadiko Mikologia sailak bestalde, ospitalei ere laguntza zerbitzua ematen die. Perretxikoak jan eta gaisotu den inor izanez gero, Xabier Laskibar mikologoak intoxikazio horren arrazoiak eta hori nola sendatu argitzen laguntzen die medikuei.

## Gero eta gutxiago

Gaur egun, Aranzadi Zientzia Elkartearen hiru mila espezieetik gora bilduta dituzte eta Europan oro har, hamar mila espezie inguru izendatu dira liburuetan. Pedro Mari Pasabanez adierazi digunez ordea, «urtetik urtera gero eta perretxiko gutxiago daude». Espezie kopurua ez da aldatu, baina bai kopurua. Honen arrazoiak zein den esatea ez da erraza, arrazoiak asko izan baitaitezke. Bixiena agian, baserriko bizitzaren aldaketa izan liteke. Lopez

Amianok azaldu digunez, «gauri batean, abereak ez ziren lurrean horrenbeste ibiltzen, eta ez zituzten perretxikoak zapaltzen», bestalde, lurra ongarritzeko moduak ere aldatu egin dira baserrietan: lehen ximaurra sardeaz banatzen zen, orain berriz, ximaurra likidoan zabaltzen da, eta ondorioz, ongarrien azidoek perretxikoak hiltzen dituzte. Eguraldi aldaketak eta kutsadurak ere izan dute eragina. Kontuak, kontu, azkeneko berrogei urteotan oso nabarmena izan da perretxiko kopuruaren jaitsiera.

## Jakín beharrekoa

Perretxikoak ez dira jaki goxo soilak. Naturan oso funtzio garrantzitsua baitute. Zenbait kasutan, inguruan dituzten zuhaitz edo landareei beharrezkoak dituzten ongarriak ematen dizkiote. Perretxikoak biltzerakoan, argi izan behar dugu zertarako nahi ditugun. Bi mikologoek argi utzi digute: «Ez dira alferrik hartu behar, jateko edo zerbait ikasteko bil-



J. I. LOPEZ AMIANO  
MIKOLOGOA

«Perretxikoak ez dira alferrik bildu behar, jateko edo ikertzeko izan behar dute, gainontzean ez bildu»



PEDRO M. PASABAN  
MIKOLOGOA

«Urtetik urtera gero eta perretxiko ale gutxiago sortzen dira; asko izan litezke gutxitze horren arrazoiak»

du behar dira. Eta jasotzen ez ditugunak, bere horretan utzi behar dira, zientziaren eta naturaren mesedetan». Jateko onak diren ala ez bereiztea oso zaila da, espezie bakoitzak bere ezaugarriak baititu. Dena dela, garrantzitsua da oso, jan litezkeen espezieak ezagutzea gainera, pozoiatsuak direnak ere ezagutzea, perretxiko batzuk antza handia baitute. Perretxikoak bildu aurretik beraz, ikasi egin behar da. Eta hauek biltzerakoan, kontuan izan aleak oso-osorik jaso behar direla, baita lur azpian geratzen den zatia ere. Horrela bakarrik jakingo dugu ziurtasun oso bildu dugun perretxikoa zein espezieetako den. Prestatzeko garaian ere, badira kontuan hartu beharrekoak. Adibidez, ez dira gordinik jan behar, zenbait espezie prestatu gabe, oso pozoiatsuak baitira. Eta prestatzeakoan, ondo egin behar dira, bestela, baliteke kalteren bat eragitea.

## Informazioa non eskuratu

Zalantzak izanez gero, Aranzadi Elkarteak herritarrentzako atea irekita ditu. Miramongo Parke Teknologikoan du bere egoitza, Arbidetorrea 1; bigarren solairuan. Astelehenetik ostiralera, bulegoa irekita izaten dute arratsaldeko 19:00etatik 21:30era.

**Herri** 

**Irratia**

**RADIO POPULAR**

**TOLOSALDEA**

1224 AM | 87.9 FM

99.8 FM | 94.8 FM



ETORKINAK ▶



Irazki elkarteko kideak eta irteerara animaturiko beste zenbait lagun, urriaren 24ean Zubietara eginiko irteeran. HITZA

# Euskara, etorkinen integrazio bide

Irazki elkarteak euskarako klaseak antolatu ditu Tolosaldeko etorkinentzat; haurrentzako eskolak aurten hasi dira, helduek berriz, bigarren urtea dute

MADDI SOROA

Tolosaldeko Irazki elkarte kulturantzak euskara klaseak antolatu ditu Euskal Herrian murgilduz 2002 proiektuaren barnean. Euskarazko eskolak Tolosaldean bizi diren Lehen Hezkuntzako haur etorkinei nahiz helduei zuzendurik daude eta Tolosako Kultur Etxean izaten dira larunbat goizetan, 10:00etatik 12:00etara. Irakasleei dagokieenez, Mirari Saizar da helduen irakaslea; haurren irakaslea, berriz, Ane Illunbe, Garikoitz Murua laguntzaile lanetan ibiltzen delarik.

Euskara klaseak, bi multzotan banaturik daude. Batetik, helduen taldea dago eta bestetik, berriz, haurrena. Helduen taldeak euskarako klaseak jasotzen dituen bigarren urtea izango du aurtengoa. Haurren taldea, berriz, aurtengo irailean hasi da euskarazko eskolak jasotzen. Proiektua, irailean hasi eta abenduan amaitzeko asmoz hasi zen; izan ere, hiru hilabeterako jasotzen baitzuten elkarteak diru laguntza. Hala ere, baliteke diru laguntza hori luzatzea. Horrela, ikasturtea irailean hasi eta ekainean amaituko litzateke. Irazki elkarteak, euskara klaseak eskaintzeaz ezezik, kultur irteerak ere

antolatu ditu Euskal Herrian murgilduz 2002 programaren barruan. Izan ere, Rita Calderon Irazki elkarteko kideak adierazi duenaren arabera, «euskara ikasteaz gain, garrantzitsua iruditzen zaigu Euskal Herriko kultura ere murgiltzea». Horregatik, hila-betean behin edo irteera egiten dute. Azken irteera, urriaren 24ean Nafarroako Zubietara egindakoa da. Bertan, errota eta inguruak ezagutu, taloa egiten ikasi eta asto gainean ibiltzeko aukera izan zuten. Irteerak ez direla elkartekoentzako soilik azpimarratu nahi izan du Calderonek.

Orain arte hamabost haur eta zazpi heldu bildu ditu Irazki elkarteko euskara eskolak. Haur gehienak hamar edo hamar urte ingurukoak dira; helduen kasuan berriz, denetik dago. Denak ere, jatorri ezberdinetakoak dira; hala nola, Sahara, Venezuela, Kolonia, Ukraina, Madril, Katalunia, Burgos.—haurren taldean—,

Brasil, Dominikar Errepublika, Kuba eta Ekuador —helduen taldean—.

Helduen eskolan Aixa metodoa erabiltzen du Mirari Saizarrek, modu horretan, euskara hurbilpena egiten dutelarik. Ane Illunbek eta Garikoitz Murua, berriz, metodo berritzaileak erabiltzen dute eskolatan. Metodologia honek, hizkuntza ikasteko eskola tradizionalak baztertzeko ditu. Izan ere, Ane Illunbe, haurren euskara irakasleak, esandakoren arabera, «ez zaigu egokia iruditzen aste osoan zehar haurrak ikastolan egonik larunbatetan ere liburu, azalpen eta ariketen artean murgildurik egotea». Horregatik, hizkuntza ikasteko eskola tradi-

zionalak baztertu eta aisialdiko metodologia erabiltzen dute; «jolasa hizkuntza ikasteko modu egokia dela uste dugulako».

## Egitasmoaren jatorria

Euskarazko eskolak sortzeko asmoa, elkarteko kideen eskarrien eskutik etorri zen. Izan ere, Tolosaldera iritsitako etorkin euskaraz ikasteko nahia adierazi zuten hasieratik, baina ez zen lan erraza. Izan ere, gauza jakina da euskaltegiak euskaraz ikasteko aukera eskaintzen duela, baina, Ane Illunbek, Irazkiko haurren euskara irakasleak adierazi duen bezala, «euskaraz ikasi nahi zuten lagun gehienek lan egi-

ten dute astean zehar, eta ezin dute euskaltegiak eskaintzen duen ordutegira moldatu. Horregatik erabaki zen eskolak larunbatetan eskaintzea». Gainera, Illunbek azaldutakoaren arabera, askok haurrak izanik ezingo lukete euskaltegi haurrekin joan. Elkarteak antolaturiko eskolentara, ordea, haurrekin joan daitezke. Era horretan, «euskaltegiak eskaini ezin dituen hainbat erraztasun ditu elkarteko eskolak», azaldu du Illunbek. Ezin daiteke ahaztu, gainera, euskarazko eskolak doan direla.

## Eskolak zertarako?

Egitasmo honekin, Irazki elkartearen helburu nagusia, euskara landu eta erabiltzeko eskolak kanpoko esparru bat eskaintzea da. Bestalde, euskara, gauza asperrariak ikasteko baino zerbait gehiagorako dela ohartaraztea eta haur etorkinen arteko harremanetan euskara erabil dezatela lortzea ere bada asmo nagusietako bat. Azkenik, beraien antzeko esperientzia bizi duten haur etorkin gehiago ere badaudela konturatzeta eta hauen arteko harremana sustatzea.

Azken finean, euskara irakatsi, Tolosaldean euskal bizimodu integratu eta etorkizuneko etorriko diren etorkinei bidea irekita uztea da euskarazko eskolekin lortu nahi dena. Horretarako, ordea, argi dute irakasleek, ez zaiela beren ama hizkuntzan hitz egiteko aukerarik baztertu behar, ez eta euskal kultura norberaren kulturaren gainetik jartzea ere. Illunbek adierazi duenaren arabera, «zuk ez baduzu beraien kultura edota hizkuntza errespetatzen, ezin diezu euskal kultura nahiz hizkuntza ikasi eta maita dezatela eskatu».

Elkarteak eskaintzen dituen euskara eskolen edota irteeren inguruan, nahiz beste nolabaitko informazioa jaso nahi izanez gero, deitu 678 63 83 94 edo 67 021 16 73 telefonoetara edo irazkiasociacionmulticultural@yahoo.es posta elektronikora idatzi.



lea-Artibai eta Mutrikuko **hitza**  
**1. URTEBETETZEA**  
azaroaren 12an,  
22:30ean  
**ONDARROAN**

**LA KINKY BEAT**  
KONTZERTUAN

sarrerak  
aurreriaz: 6 euro  
takilan: 8 euro  
Zenbat Gara lagunak  
edo Hitza karnelagaz: 4 euro

Kafe  
ZIN  
KIA



## Txirrindularitza munduko hainbat lagun Garmendiarekin

**VILLABONA** ▶ Irrintzi elkarteak antolatu dituen aurtengo txirrindularitzari buruzko jardunaldiei amaiera eman zitzaizen herenegun gauean, Aitor Garmendia Itsasondoko txirrindulari ohiari eginko omenaldiarekin. Argazkian ikusten denez, txirrindularitza munduko hainbat lagun gerturatu ziren Gurea

aretora. Omenaldiaren barruan, mahai ingurua egin zen eta Aitor Garmendiaz gain, Miguel Indurain eta Abraham Olano aritu ziren omenduaren ibilbide profesionala gogoratzen. Omenduari eskainitako abesti, agur-dantza eta oparien ondoren Irrintzi elkartearen afaldu zuten gonbidatu guztiak. KARLIS

**VILLABONA-ZIZURKIL** ▶ KIROLA

# Danena-Olaederrakoen emaitza bikainak A Coruñan

Espainiako Txapelketan Euskadirekin 3.ak izan dira; 15 domina lortu dituzte

**IMANOL GARCIA**

Danena-Olaederra taldeko pultsulariak emaitza bikainak lortzen ari dira denboraldi guztian zehar. Orain gutxi A Coruñan izan zen Espainiako 15 urte azpiko txapelketan hartu zuten parte, Euskadiko selekzioarekin, eta bertan hirugarren postua lortu zuten. Aipatzekoa da selekzio bakoitzetik zortzi pultsularik hartzen dutela parte eta Euskadikoan horietatik sei Danena-Olaederrakoak izan ziren. Hain justu, selekzioaren beste biak, bizkaierak, ezin izan zuten joan eta horrek puntu gutxiago lortzea ekarri zuen.

Guztira hamabost domina lortu zituzten: urrezko bat, zilarrezko bederatzi eta bron-



Sei pultsulariak A Coruñan eskuratuako dominekin. I. GARCIA

tzezko bost. Gainera Euskadiko Sub-15eko errekorrak hobetu ziren: Igor Sasiainek, arrankadan 55 kilo; eta Jon Sasiainek, arrankadan 87,5 kilo, bi den-

boratan 105 kilo eta total olinpikoan 187,5 kilo eta 192,5 kilo.

17 urte azpiko taldeak —bertan parte hartzen dute 15 urte azpiko pultsulari batzuek

**DOMINAK** ▶

**Iker Hernandez.** 45 kiloko mailan, zilarrezko domina bat eta brontzezko bi domina.

**Igor Sasiain.** 50 kiloko mailan, hiru zilar.

**Jon Lopez.** 56 kiloko mailan, bi zilar eta brontzea.

**Jon Sasiain.** 62 kiloko mailan, hiru zilar.

**Jon Ander Iriarte.** 69 kiloko mailan, urrea.

**Mikel Quintana.** 69 kiloko mailan, hiru brontze.

\*Espainiako Sub-15 mailan.

ere— Bilbon jokatu zen Euskadiko txapelketa irabazi zuen eta pultsulari guztiak sailkatu ziren Culleran (Valentzia) jokatu den Espainiako txapelketa.

Bestalde, atzo Gipuzkoako klubaren arteko txapelketa jokatu zuten Danena-Olaederrakoe eta seniorretan —20 urtetik gora— hirugarren postua eta juniorretan —20 urte azpitik— lehenengoa postua lortu zuten.

**TOLOSA** ▶

## Merkatariei zuzendutako jardunaldiak

Igarondo Tolosako Merkatarien elkarteak merkatariei zuzendutako jardunaldia antolatu du, *Finantza-entitatekin negoziatu* izenburuarekin. Datorren ostegunean, hilak 11, izango da jardunaldia Kultur Etxean 20:15etik aurrera. Igarondo elkarteak ki-deek doan joan ahal izango dute, eta gainerakoek 10 euroko kuota ordaindu behar dute. Jardunaldian parte hartzeko izena eman behar da 943 67 52 24 zenbakian.

**AMEZKETA** ▶

## Txizari eusteko arazoei buruzko hitzaldia

Datorren asteartean, hilak 9, txizari eusteko arazoei buruzko hitzaldia eskainiko du Jose Luis San Martinek. Hitzaldia 19:00etan eta gela baliointzean izango da.

**TOLOSA** ▶

## Pilota partidak bihar 16:30ean Beotibarren

Beotibarren eskupilota partidak izango dira bihar, arratsaldeko 16:30etik aurrera. Lehenengoan, Saralegi-Eskudero Mendizabal-Albizuriaren aurka. Ondoren, Esain-Peñagarikano eta Berasaluze VIII-Errasti. Bukatzeko, Koka-Pinedo eta Agirre-Medina.

**ORENDAIN** ▶

## Gimnastika saioak, asteartetan

Adineko pertsonentzako gimnastika ikastaroa izaten da asteartetan, Erretore Etxean. 16:00etatik 17:00etara bertan Eztitxu Unzain fisioterapeutarekin ariketa desberdinak egiten dituzte. Saiotara orendaindarrak ez ezik, inguruko herrietako biztanleak ere joan daitezke.

**www.tolosaldekohitza.info**

▶ sar zaitez eskualdeko web atarira

▶ inkestak, eztabaidak, eguneko albisteak, argazki bildumak, zerbitzuak, zorion agurrak...



**Promozioa eta eraikuntzak**

Bizkai kalea, 2 - behe  
20400 TOLOSA  
Faxa: 943 69 71 98

Tel.: 943 67 21 72 - Mug.: 608 77 28 01

AZOKA ▶

Hotzarekin lasaitasuna iritsi da azokara

Gorringoak edo 'Amanita cesarea' perretxikoak harrera ona izan du

PABLO ALBERDI

Eguna fresko argitu zen atzo eta, dirudienez, erosleengan eragina izan zuen horrek. 11:00ak arte ez zen mugimendu handiegirik somatu postuetan, baina goizak aurrera egin ahala, salmentak dezente igo ziren.

Aipatzekoa izan zen perretxikoen eskaintza zabala. 250 kilo onddo jarri ziren salgai (prezio aldaketarik ez zen egon); horiez gain, ziza horriak eta gamuzak aurkitzen ziren. Gorringoak edota Amanita cesarea perretxikoak ere ikus zitekeen; oso preziatua da eta interes berezia sortzen du erosleen artean. 25 euroko salneurria izan zuen.

PREZIOAK ▶

Zerkausia	merk.	gares.
<b>Bertako produktuak</b>		
Onttoa	12,00	22,00
Ziza horia	15,00	-
Gorringo	25,00	-
Usoa	6,00	-
Oilaskoa (3. ast.)	1,50	-
Oilaskoa (4. ast.)	1,60	-
Arkumea	3,00	3,20
Kalabaza	1,50	3,00
Lekak	4,00	-
Arrautzak	1,30	2,10
Irasagarra	3,00	6,00
Artoogia	3,50	-

Produktu ekologikoak		
Udarea	1,92	2,72
Sagarra	2,13	3,00
Azenarioa	2,14	2,53
Arroza	1,90	2,00
Babarrun zuria	5,55	-
Tipula	1,74	2,01
Baraturia	1,62	7,60
Kogoiola	0,85	-

Berdura plaza		
Lila	1,20	-
Krabelina	4,80	-
Txilarra	4,50	-
Konifera	6,00	-
Geranioa	2,00	-
Surfinia	2,40	-
Ziklamena	3,50	4,50
Surfinia	2,40	-
Izpilikua	4,00	6,00
Azalea	3,50	10,00
Porrua	2,40	-

FUTBOLA ▶

Sailkapenean pareko zuen taldeari aurrea hartu dio Tolosak

Urolaren aurka 1-3 irabazi zuten atzo tolosarrek; 18 puntu dituzte orain; hurrengo partida Ordiziaren aurka etxean

OLAIA ESKITXABEL

Atzo, Urolaren aurka Zumarragan jokaturako partidarekin «pozik» agertu zen Tolosa futbol taldeko entrenatzailea, Jose Manuel Luluaga. Sailkapenean 15 punturekin parekatuta zegoen taldeari aurre hartzea lortu dute; atzoko 1-3ko emaitza lortuta sailkapenean 18 punturekin jarri dira: «Irabazteko esperantza genuen, baina Urolako taldea oso ona da eta puntu berdinak genituen. Horrelako partidak arriskutsuak izaten dira; eta oso gustura gaude lortutako emaitzarekin», zehaztu du Luluagak.

Atzoko neurketara ohi baino jokalaririk gutxiagorekin joan ziren tolosarrek: «Blancoren baja luzerako izango da, Arregi gaixo dago, Ekaitz lanean mina hartuta dago eta Pablok ezin izan du gaur jokatu», azaldu du Luluagak jokalariek bajen berri ematerakoan. Hala ere, partidaren jokatu duten jokalariek «oso ondo erantzun dute gaurko partidaren», azaldu du.

Tolosaren entrenatzailearen esanetan bereziki lehenengo zatian, tolosarrek izan ziren nagusi: «Jokalariek partida kontrolatzen jakin dute eta horren emaitza Jonek kornerretik sartutako gola izan da. Pare bat aukera gehiago ere izan ditugu», azaldu du Luluagak. Urola taldeko jokalariek ere gola sartzeko aukerak izan zituzten.

Bigarren zatia, «nahiko parekatua» izan zen; hasi eta berehala tolosarren bigarren gola iritsi zen Javiren eskutik. Urolarek joko aldatu zuten orduz geroztik: «Jokalarik asko gora igo ziren partida bere gain hartuz. Eta partida amaitzeko hamar minutu inguru falta zirenean korner batetan arbitroak penaltia pitatu zuen eta lehenengo gola sartu ziguten. Parti-



Lau baja izan zituen Tolosak atzo Argixaio zelaietan. MIRIAM LUKI

UROLA ▶ 1

TOLOSA ▶ 3

**Urola.** Gabri; Zubiaurre; O. Zubiaurre; Toiño; Gereñu; Caballero; Tena; Alex; Galvez; Roberto; Martin.

**Tolosa.** Atxu; Gorka; Unai; Aimar; Jon; Iñigo; Orue; Romero; M. Aierbe (Elola, 55m.); Javi (Pabli, 70m.); Aiert (Ilunbe, 75m.).

**Golak.** 0-1: Jonek; 0-2: Javk; 1-2: Caballerok; 1-3: Jonek.

**Txartel horiak.** Urola (bost txartel); Tolosa (Orue, Romero, Iñigo, Aiert, Ilunbe, Atxu).

**Txartel gorriak.** Urola (Alberdi).

**Arbitroa.** Josu Berasategi.

da amaitu bitarte sufriztea tokatu zaigu». Azken minutuetan, Urolako jokalaririk batek (Alberdik) atean sartzeaz zegoen batoia geratu zuen eskuz eta arbitroak penaltia pitatu zuen, Urola taldeko jokalaririk txartel gorria ateratzearekin batera. Tolosarren hirugarren gola iritsi zen orduan Argixaioan.

Hamaika txartel hori eta txartel gorri bat izan ziren Urola eta Tolosa taldeek atzo jokatutako neurketan; horren inguruan «ateratako txartel gehienak arbitroaren lan eskasari» egotzi dizkio Luluagak: «Partida borrokatua baina garbia izan zen; eta bitaldeetako jokalaririk behar bezala aritu ziren».

Hurrengo partida datorren larunbatean, azaroaren 14ean, izango dute tolosarrek; Ordiziaren aurka etxean (Berazubina) jokatuko dute 16:30ean.

Hurrengo partida datorren larunbatean, azaroaren 14ean, izango dute tolosarrek; Ordiziaren aurka etxean (Berazubina) jokatuko dute 16:30ean.

hilberriak ▶ eskelak hartzen dira: 19:00ak arte • 687 53 02 58 • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

**Pakita Morillas Urdampilleta**  
andrea

Zerbitzari ona izan zara laguntzeko beldurrik ez zenuen bate zuri ere mundu hontako denbora egin zaizu bete asko maite zenuen gure familia asko maite zenuen Iriarte mila esker denon partetik agur eta egun handira arte

**Iriarteko sendia**  
BELAUNTZA, 2004ko azaroaren 7a

**ESKERTZA ▶**

**PAKITA MORILLAS URDAMPILLETA** andere hil berriaren sendien partetik, eskerrak samin agurra bidali zenuen eta hileta elizkizunetara etorri zineten guztiak.

**Belauntza**, 2004ko azaroaren 7a

TELEFONOAK ▶

LARRIALDIAK

▶ 112

- Anoetalde.** Medikua: 65 23 39
- Anoetalde.** Medikua: 65 23 39
- Asteasu.** Medikua: 69 24 23
- Berastegi-Elduain.** 68 33 61
- Bidegoian.** Medikua: 68 11 34
- Ibarralde.** Osasun etx.: 672411
- Irura.** Osasun zentroa: 69 07 20
- Leitza.** Osasun z.: 948 510800
- Lizartza.** Medikua: 68 20 77.
- Tolosa.**
  - ▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111
  - ▶ Gernikako arbola: 00 69 00
  - ▶ Asunzio klinika: 67 57 99 - 67 53 90 (larrialdiak)
  - ▶ DYA: 67 25 36
  - ▶ Gurutze Gorria: 67 48 88
- Villabona.** Anbulat.: 00 69 70

GARRAIOAK

- ▶ Renfe Tolosa: 65 28 89
- ▶ Donostiako autobusa: 36 17 40
- ▶ Taxia: 67 04 20
- ▶ Taxia (Leitza): 608 873016

GUARDIAKO FARMAZIAK

**Gaur.** Olarreaga, J. Martin Jose Iraola 10 (Ibarrak). 943 67 24 38 Erbiti O. Lizarraga 7 (Leitza). 112

TOLOSALDEKO HITZA

**Publizitatea.** 661 67 88 18. tolosaldean\_public@tolosaldeko-hitza.info  
**Tolosa.** 687 41 00 82 - 687 41 00 33. tolosa@tolosaldeko-hitza.info  
**Villabona-Aizt.** 687 41 00 22. villabona\_aiztondo@tolosaldeko-hitza.info  
**Anoetalde.** 687 41 00 22 anoetalde@tolosaldeko-hitza.info  
**Ibarralde.** 687 41 00 32. ibarralde@tolosaldeko-hitza.info  
**Alegialdea.** 687 41 00 34. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info  
**Leitzalde.** 687 41 01 18. leitzalde@tolosaldeko-hitza.info

iragarki laburrak ▶

**LANA**  
**Kamareroa.** Kamarero/a behar da 40 orduko kontratupean, asteleheneetik larunbatera. 635 700558.

**SALGAI**  
**Soinu ekipoa.** Soinu ekipoa osoa salgai. Argibideetarako deitu: 943 674806 / 943 117738.

**Auto irratia.** Autorako irratia salgai; Paioneer 7.000 Vx7, telebista, DVD eta 6 CD. Audio ekipoa aukeran. 618 772950.  
**Extebizitza.** Iurren. Pisu baxua, bi gela, egongela, sukialdea (altzariek), komon bat eta balkoi handia. 656 782325.

**GALDUTAKOAK**  
**Txakurkumea.** Hiru hilabeteko txakurkumea galdu da Gaztelu eta Berastegi artean. Deitu: 943 672010 edo 943 675872.



Harpidedunei banatua ▶ 2004ko azaroaren 7a, igandea ▶ II. urtea

'HITZA' LAGUNTZEN  
DUTEN ERAKUNDEAK

udalak: Abaltzokia, Aduna, Altsatur, Alegia, Alkiza, Alzo,  
Amezketeta, Anoeta, Ballarain, Belaurtza, Berasteg, Elduain,  
Hernialde, Iruña, Iruña, Larradi, Leaburu, Lizarza, Orendain,  
Oreña, Tolosa, Villabona, Zizurki.

Gipuzkoako  
Foru  
Aldundia

Eusko  
Jaurerria.  
Kultura Salla

GAURKO  
EGURALDIA

goizez



arratsaldez



beroena

12

hotzena

10

BIHARKO  
EGURALDIA

goizez



arratsaldez



HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA  
(zalantzak, harpide egiteko...)

943 30 43 46

## AGENDA ▶

### AFARIAK-BAZKARIAK

**Amezketeta.** San Martin eguneko bazkaria Behartzana jatean egingo da. Izen-ematea: 943 650695 edo 605 727730.

**Ibarra.** Hauspoa kultur elkarteak babarrun festa antolatu du gaurko: herri kirolak eta babarrun jatea.

**Tolosa.** Jesusen Zerbitzarietan ikasi zutenen urteko bilera. Meza izango da komentuan gaur 11:30ean eta bazkaria Usabal sagardotegian.

**Tolosa.** Azaroaren 13an urteroko afaria egingo dute Zezen-plaza ingurukoak. Izen-ematea ohiko tokietan.

**Tolosa.** Denboraldi amaierako afaria egingo dute Tolosa CFko zikloturistek hilaren 27an. Izen-ematea: 943 655092 edo 649 406085 (Dani).

**Tolosa.** Azaroaren 20an, Mexikoko iraultzaren eguna, Euskal Herrian bizi diren mexikarren topaketa egingo da Donostiako Ezeiza hotel-jatean. Izen-ematea: 656 77 02 04 (Rosalia) eta 646 86 73 64 (Jose Antonio).

**Tolosa.** Azaroaren 13an, Engomadora Moderna enpresako langile ohien bazkaria. Fronton jatean. Izen-ematea 943 674669, 943 117010 eta 943 651955 telefonoetan.

**Tolosa.** Azaroaren 27an Ikastolako ikasle ohien afaria eta festa. Txartelak Ikatza, Orbela eta Iruña tabernetan salgai 20 eurotan, hilaren 22 arte.

### DEIALDIAK

**Aiztondo.** Argazki rally-a gaur. Izen-ematea 9:30etik 10:30era Alkizako udalebako atarian. Parte-hartzeko hamar euro ordaindu behar dira.

**Anoeta.** Alkartasuna jubilatuen elkarteak mahai jokoak antolatu ditu azaroaren 9tik 13ra bazkide eta jubilatuentzat. Musa lau eta zortzi erregeetara, tute, puntto eta domino binaka eta bintxon banaka izango da. Izen-ematea egoitzan.

**Goiatz.** Azpeitiako Argazki Elkarteak antolatutako mendiko argazki rally-a gaur Goiatzen. Izen-ematea Goiatzeko plazan; 09:00etatik 10:00etara.

**Tolosa.** Mendeurrena betetzen duela-eta, meza nagusia izango da 11:00etan Izaskungo ermitan. Ibarra eta

Tolosako alkateak, zinegotziak, parrokoak eta parrokieta abesbatzak izango dira. Ondoren hamaiketako izango da bi tabernetan.

**Tolosa.** Urdiña txiki elkarteak 3. Xake Txapelketa Azkarra antolatu du 09:30ean. Interesatuak elkartearen agertu behar dute.

**Tolosa.** Shanti Kirolak dendak autobusa antolatu du datorren igandean Behobia-Donostia herri lasterketan parte hartu behar dutenen joan-etorriarako. Informazioa eta izen-ematea, dendan bertan.

**Tolosa.** Iribarren musika taldeak dantzaldia eskainiko du Harizpe jubilatuei eta pentasiodunen elkartearen (Emeterio Arrese plaza 2, behean); 18:30etik 20:30era.

**Tolosa.** Tolosako Xake Elkarteak marbxan jarri du denboraldia. Egoitza plaza Berrian du (lehen IMI zena). Xakean jokatu nahi duena igandero 11:00etan joan daitezke bertara.

**Villabona.** Oinkari taldeak azken bi saioetako DVDak jarri ditu salgai, bakoitza 10 eurotan eta biak 15 eurotan. Astearte eta ostiralean 18:30etik 22:30era Jesusen Bihotza ikastolaren ganbaran.

### KIROLA

**Berrobi.** XIII. Frontenis Txapelketarako izena eman daiteke udalebean, Urkola tabernan, Iriarte jatean eta Tolosako Aralar Kirolak dendan hilaren 12a baino lehen. Bikote bakoitzak 10 euro ordaindu behar du eta banakakoek 5 euro.

**Villabona.** VII. Areto Futbol Torneurako izen-ematea irekia dago azaroaren 11 arte Olaederra kiroldegian. Partidak larunbata arratsaldetan eta igande goizetan jokatuko dira. Txapelketa, azaroaren 20an hasiko da.

**Tolosa.** Profesionalen arteko pilota partidak, bihar, Beotibarren 16:30ean: Saralegi-Eskudero Mendizabal-Albizuriren aurka; Esain-Peña-garikano Berasaluze VIII.a Errastiren aurka eta Koka-Pinedo Agirre-Mendiaren aurka.

### ZINEMA

**Tolosa.** *El diario de Noa.* Leidor zineman 17:00, 19:30 eta 22:30ean. Bihar, 19:30 eta 22:30ean.

# Xakea txikientzat

ANOETA/IRURA ▶ Gaztetxoenei zuzendutako xake ikastaroari ekin zioten atzo hogeita hamar ikaslek



Anoetako udalebean, ikasleak burubelarri xake partidan. I.GARCIA



Iruurako txikienek liburutegian hasi zuten ikastaroa. I.GARCIA

IMANOL GARCIA

**A**noetako eta Iruurako haurrek atzo ekin zioten xake ikastaroari. Bi udalek antolatu duten egitasmo honekin herrietako gaztetxoei zaletasuna piztea du helburu, datorren urtearen hasieran marbxan jarriko den Xake Txokoa parte hartzeko. Txoko horretan xakea oinarriz hartuta ekitaldi ezberdinak antolatuko dira. Ikastaroak abendua arte iraungo du eta bertan ezer ez dakienak zerbait ikastea eta zerbait dakienak pixkat hobetzea da helburu, hori bai, ahaztu gabe ondo pasatzea dela funtsezkoena.

«Piezak zein diren, oinarriko mugimenduak... horrelako gauzak erakusten ditugu», azaltzen du Ramon Etxeberria Tolosako Xake Elkarteak lehendakariak, ikastaroan aritzen den hiru irakasleetatik bat. Oinarriko ezagutza dutenean hasiko dira estrategiak, nola hasi, nola bukatu erakusten. Hiru talde sortu dira eta lehenengo eguneko hogeita hamar ikasle azaldu ziren. Nagusienak —LH 5 eta LH 6koak— Anoetako udalebean elkartzen dira eta txikienekin bi talde egin dira: irurarrak bere herriko liburutegian eta anoetarrek eta beste herrikoak Anoetako udalebean.

Xakeak haurren dituen onurak laburbiltzen ditu Ramon Etxeberriak: «Atentzioa fijatzen lagundu, kontzentrazioa sendotu, erabakiak hartzen lagundu, memoria landu... Horrelako gauza onak beti ikusi izan zaizkio honen inguruan egindako lanetan».

## ZORION AGURRAK ▶



**ZORIONAK**  
Uxue Aizpurua De Paz  
(Asteasu). Gaur 2. urte.  
Guraso eta senideen partetik.

**HITZA, zorion agurren tartea**  
Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak... zoriontzeko, etorri:  
HITZAren egoitzetara:  
Araba etorbidea, 5 behean - TOLOSA  
Udaletxeko bulegoa - LEITZA  
Mesedez, argazkia bi egun lehenago ekarri.  
Mila esker!